

Benetako intelektual bat

Joxe Azurmendiren heriotzarekin, zalantzarik ez daukat, lehen mailako erreferentzia intelektual bat galdu dugu Euskal Herrian; eta horrelakoak hain ustekabeen etortzen ez badira ere, horixe da bizitzaren legea, pena eta atsekabe handiz hartu dut berria. Pertsonalki ere galera izan da niretzat, ze, bera nire irakasle zuzenean izan ez bada ere, haren maisutza oso presente eduki izan baitut beti; nire lehen artikuluetako bat, gainera, Joxek eskatuta, JAKINEN argitaratu nuen, eta, ordudanik, bera beti egon da eta beti izan dut prest laguntzeko. EHUn ere gertuko lankide izan dut Azurmendi: titulazio, sail eta fakultate ezberdinetan egon gara, bai, baina beti eraikin berean. Berarekiko nire gertutasuna, dena den, ez da bakarrik fisikoa izan, baizik eta baita giza interes konpartitu baten arabera ere. Eta horregatik azpimarratu nahi nuke, marra lodiz gainera, zein erraza izan den beti berarekin hitz egitea, bulegoan edo pasilloan, eta zein aberatsak izan diren beti haren hitzak eta haren ikuspuntuak. Niretzat ohore bat izan da harengandik gertu egon ahal izatea.

Baina Azurmendiri buruz esan daitezkeen eta esan behar diren gauza on askoren artean, nire ustez, bada arreta berezia merezi duen zerbait: ez da soilik irakasle bikain edo idazle oparo bat izan; aitzitik, horrekin batera, benetako intelektual bat izan da. Bestelako hitzez, zera esan dezakegu: pentsalari bezala eskaini digunaren balioa ezin da pisuz neurtu, nahiz eta horretan ere –ikusita zenbat idatzi duen– seguru nota onena jasoko lukeen. Haren lanaren benetako balioa horrek guretzat duen esanahian dago. Intelektual bat, eta horixe da Azurmendi bete-betean, erreferentzia bat da, hots, ikerketa solte ezberdinak sartzeko bitartekoak eskaintzen dituen norbait. Eta hori funtsezkoa da gurea bezalako garai batean, non espezialistek ere ikuspuntu orokorrak behar dituzten. Begiratu besterik ez dago zenbat gai eta zenbat autore landu dituen bere testuetan: begirada filosofiko batetik, hori

bai, giza eta gizarte zientzia denak interesatu zaizkio, funtsean, berak buruan eta bihotzean izan duena, egiaz, ez delako gizakia bera baino izan. Azurmendiren helburua gizakia ulertzea izan da, haren osotasun eta aniztasunean, eta horregatik interesatu zaizkio filosofia eta literatura, historia eta artea, hizkuntza eta kultura, biologia eta psikologia, eta horregatik bilatu izan ditu ere horien arteko loturak. Bada, horixe da berak eskaini diguna, bai, eta zentzu horretan esan dezakegu taxuzko intelektual bat izan dela guretzat. Haren obra oparoa hor daukagun heinean, gainera, harena ez da iraganeko kontu bat bakarrik: etorkizunean ere erreferentzia bat izango da.

Baina beste zerbait ere azpimarratuko nuke: Azurmendik ez ditu giza kontuak besterik gabe edo airean landu; aldiz, euskaldunak izan ditu beti gogoan, eta, zentzu horretan, haren pentsamendua beti egon da euskal auziarekin guztiz konprometituta. Errotutako pentsalaria izan da; areago, ez ditu bere erroak ahaztu nahi izan. Berarentzat, pentsatzea zerbitzu publiko bat burutzea zen, eta, horren ondorioz, bere gaitasun eta ekintza guztiak euskal hizkuntzaren eta euskal kulturaren zerbitzuan jarri ditu. Horren segidan ulertu behar da, egiaz, 2019an sortutako Pentsamendu Garaikiderako Joxe Azurmendi Katedra. Eta kasik esan beharrik ez daukat: pertsonalki ere niretzat zorte handia izan zen orduan, EHUKo errektore nintzela, egitasmo hori bultzatu ahal izatea. Kostatuko da bera bezalako beste norbait izatea –mirariak ez dira egunero gertatzen–, baina bitartean goza dezagun haren oroitzenarekin eta, batez ere, jarrai dezagun berak utzitako lanak aztertzen eta berritzen. Hitz batez: jarrai diezaiogun haren ereduari.